

Agarre Urreta (Arreurreta)



AIERBE MENDIZABAL familia

ARREURRETA *Saturdi* auzoko baserria da. Ingu-ruko paraje eta soro izenen artean daude *Goi-kosoro, Zeharsoro, Artasoro, Ermitazpi, Mitxela, Txakalato*.

Bertakoek diotenez lehengo baserria erreka ondoan omen zen eta hura erori zenean egin omen zuten lau bizitzako etxe handia.

Joan Bautista Aierbe eta Maria Mendizabal 1941ean ezkondu ziren. Maria Zaldibiko *Agarrekoa* zen. Zaldibin ezkondu ziren eta etxean egin zuten otordua. Etxean bizi ziren artean aita-amak eta hiru anai-arreba.

Sei seme-alaba izan zituzten: Joxepa, Joxe, Julita, Inazio, Pello eta Antton.

Baserritik bizi ziren. Bazituzten hiru-lau behi, bi idi, txerramak. Esnea esnezaleari ematen zioten, eta txekorrak harakinari. Txerriak eta oilo eta oilaskoak, berriz, feriara eramaten zituzten. Etxerako baratzea zuten eta bertan ereiten zituzten patata, arto eta babarrun.

Joan Bautista *Fabrika Handian* aritu zen lanean, baina konturatu zen gurdi bat egur ekarri ezkerro *Joan Manueleneko* Baixteri, gehiago irabazten zuela, eta horregatik idiak erosi eta egurra ekartzen zion Joan Manueli, hark errota eta okindegia baitzuten. Gero ibili zen baso eta mendietan zuhaitzak aldatzen. Bitartean, amarenak ziren etxeko eta baserriko lanak: haurrak, animaliak... eta arropa garbitzera beheko errekarra joaten zen.

Auzorako bidea eta etxerainokoa 1955ekoa da. Etxetik ordu erdia behar zuten laneraino. Eskolara joateko auzo guztikoak joaten ziren bidez. *Arreurreta* seme-alabek eskolara bidean ordubete ematen zuten joateko... baina nahiko zuten ordu erdia itzultzeko, eskolarako gogo gutxi baitzuten.

Beraien seme Pedro eta Mari Karmen Arbilla, Itsasondoko *Latinberriko* alaba, 1976an ezkondu ziren *Saturdin*. Ataungo *Bittor* jatetxean egin zuten otordua eta handik Benidormera egin zuten ezkontza bidaia. Artean aita-amak eta lau anaia bizi ziren etxean. Hiru seme-alaba izan dituzte Oier, Urko eta Janire.

Informazio emaileak:
Pedro Aierbe eta Mari Karmen Arbilla



Maria Mendizabal eta
Joan Bautista Aierbe (aita-amak).



Julita, Maria (ama), Anttoni, Pello,
Joan Bautista (aita), Inazio /
Joxepa eta Joxe.



Pedro Mari Aierbe eta
Mari Karmen Arbilla.



Oier, Mari Karmen, Pedro, Urko / Janire.